



# Smart Lab Gipuzkoa

## Diru laguntzaren xedea.

Diru laguntzen xedea da Smart teknologiek inbertsioa duten Livin Lab proiektuen garapena eta ezarpena sustatzea Gipuzkoan. Helburua da teknologia horien ezarpen pilotuak egitea eta horien erabilera sistematikoki aztertzea, berrikuntzako ekosistema ireki batean, testuinguru errealean eta egunerokoetan, ezarpen horien eta horrekin lotuta dagoen negozio ereduaren balioztapen teknikoa egiteko.

Proiektuak Gipuzkoan landu behar dira, eta eginkizun hauek izango dituzte: pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzea; enpresen lehiakortasun baldintzak hobetzea; administrazioaren efizientzia hobetzea; eta, modu eraginkor batean, ingurumen iraunkortasunaren alde egitea.

## Aurrekontua.

Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 500.000,00 eurokoa da.

## Onuradun izango dira:

- Gipuzkoko enpresak. Sozietate eta zerga helbidea Gipuzkoan izan behar dute.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeak. Helbide soziala eta fiskala Euskadiko Autonomia Erkidegoan izan beharko dute eta kreditatu beharko dute ezen gutxienez badutela jarduera ekonomikoko zentro bat Gipuzkoan, non proiektua garatuko bait da.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko I+G zentroak, Smart teknologien esparruan aritzen badira. Nahikoa izango da egiaztatzea proiektua garatuko duen unitatea Gipuzkoan kokatuta dagoela.

***Diru laguntza deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira entitate talde batek bultzatutako proiektuak, kasu horretan, gipuzkoarra izan beharko den entitate horietako bat beste guztien buru izango da eta eskaeraren arduraduna. Proiektu osotik diru laguntza jasoko du Gipuzkoako entitateei dagokien zatiak.***

Aurkeztutako proiektuek, gutxienez, izaera publikoko Gipuzkoako entitate baten berriarazko babesaren izan beharko dute, eta entitate horren inplikazio maila adierazi beharko da eskaeran.

## Diru laguntzen gehiengo zenbatekoak.

Europar Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 Erregelamenduak, laguntza kategoriatan batzuk merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratu duenak (artikuluak aplikatuta (Kategorien arabera salbuespenen erregelamendu orokorra), 31.3 eta 4 artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza intentsitateak ez du ondorengoa gaitutiko:

**Garapen esperimentalak:** Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.

Oinarritzko laguntza intentsitateak handitu ahal izango dira ondorengo eran:

- laguntzak enpresa ertain edo txikientzat direnean, laguntzaren gehieneko intentsitatea handitu ahalko da, ehuneko 10 puntu enpresa ertainen kasuan, eta ehuneko 20 puntu enpresa txikien kasuan; eta
- ehuneko 15 puntuko hobaria erantsi ahal izango da baldin eta:
  - proiektuan bi enpresa elkarren independenteren arteko benetako lankidetzaren bidez, eta baldintza hauek betetzen badira:
    - enpresa batek bakarrik ezin ditzake bere gain hartu lankidetzaren barnean diru-laguntza eman dakiekeen kostuen %70 baino gehiago.
    - proiektuak gutxienez ETT baten lankidetzaren izan beharko du.

b.2) proiektuan enpresa baten eta ikerketako erakunde baten arteko lankidetzaz aurreikusten bada, eta baldintza hauek betetzen badira:

- ikerketako erakundeak bere gain hartuko du, gutxienez, diru-laguntza eman dakiekeen kostuen %10, eta

- ikerketako erakundeak ikerketa proiektuen emaitzak argitaratzeko eskubidea izango du, berak egindako ikerketen zuzeneko emaitza diren heinean.

Proiektuko eta urteko gehieneko diru laguntza 200.000 eurokoa izango da.

### Balorazio irizpideak.

- 1.- Proiektuari Smart izaera ematen dioten ezaugarriak: 30 puntu arte.
- 2.- Proiektuaren berrikuntza maila: 20 puntu gehienez
- 3.- Proiektuak izan dezakeen eragina: 20 puntu gehienez.
- 4.- Proiektuan sartuta dauden entitateen profila: 20 puntu gehienez.
- 5.- Egin beharreko ahalegin finantzarioa: 10 puntu gehienez
- 6.- Software librea: 10 puntu gehienez.
- 7.- Memorien kalitatea: 20 puntu gehienez,

### Bete behar diren epeak

Eskaerak aurkezteko epea: **2014ko ekainaren 11tik uztailaren 10era arte.**

Proiektuak argitalpen datatik aurrera hasi beharko dira (2014ko ekainaren 10etik aurrera).

Entitate onuradunek 2014ko abenduaren 10a baino lehen justifikatu behar dute proiektua gauzatu dutela.

***Diru laguntzaren aurretiko ordainketa eskatzea erabakiko balute, eskaera hori eta abal bat aurkeztu behar dute 2014ko abenduaren 10a baino lehen, proiektuari hasiera eman diotela egiaztatuta. Kasu horretan, proiektua gauzatu dela egiaztatzeko azken eguna 2015ko ekainaren 30a izango da.***

Gipuzkoako Foru Aldundia

### Eskaeran aurkeztu beharreko informazioa.

Diru laguntzak kudeatzeko aplikazio korporatiboan sartuta, informazio hau emango da eskaeran:

- a) Oinarrizko inprimakia, erakunde eskatzaileen identifikazio datuak biltzen dituena.
- b) Proiektuaren galdetegia: proiektuari buruzko hainbat informazio biltzeko, alderdi teknikoari eta merkatukoari dagokionez, hala nola, lortu nahi diren helburuak, esku hartzen duten erakundeak, aurreikusitako adierazleak, herritarrengan izan dezakeen eragina, herritarren parte hartze maila proiektuan,...
- c) Barruko eta kanpoko gastuen aurrekontu xehatua. Proiektuaren aurrekontu osoaz gain, diru laguntza jasotzeko eskubidea izan eta proiektuan esku hartzen duen erakunde bakoitzaren aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da.
- d) Gipuzkoako erakunde publikoren baten berariazko babesa egiaztatzen duten agiriak.
- e) Memoria, enpresak egokitzen jotzen duen formatuan, proiektuaren aurkezpen handituan.
- f) Aitorpen erantzulea.